

Frisieraren erabilera bultzatzeko euren bertsogintza asmatu dute zerotik, **bertsolaritza oinarri hartuta**

Euskal bertsolaritzaren eragin sozialak liluratuta, frasierazko ahozko inprobisazioa hutsetik sortu dute bertako dozena erdi lagunek, gazteak hizkuntzarekin jolastera animatu daitezten. Tradiziorik ezean, euskal bertsolaritzatik egokitu dituzte *bartelje*-ren oinarritzko arauak.



Dabi Piedra

“Frisian ez dugu Francoren diktadurarik izan, nederlanderaren eta frasieraren arteko harremana ez da gatazkatsua”, diote *bartelje* proiektuaren sortzaileek, Ipar Itsasoaren ertzeko eskualde lasai hartako egoera soziolinguistikoa testuinguruan jarriz. Frisierrek ez dute beren hizkuntza hil ala biziko egoeran ikusi, ez dago frasieraren aldeko mugimendu sutsurik ez kontzientziazio sakonik. Baina hizkuntza gutxitu guztiek bezala, biziraupena jokoan du frasierak: neurririk hartu ezean kolokan izan dezake etorkizuna.

Hain zuzen ere, euskarazko bertsolaritzan ikusi zuen gizartea aktibatzen eredu frasieraren aldeko taldetxo baten. Frisiako biztanleen erdiek frasieraz badakiten arren eta erabilera datuak



onak diren arren, etxeko eta lagunarteko hizkuntzatzen dute gehienek, eremu publikoan nederlanderara eta ingelesera jotzen dute, eta arlo formalean zer esanik ez. Ahozko inprobisazioa hizkuntzarekin jolasteko aitzakia eta frasiera plazara ateratzeko bidea izan daitekeela uste dute.

Proiektu berritzaile hau martxan jarri duten taldetxoko kide dira Bart Kingma eta Mirjam Vellinga. Zinema zuzendaria da Kingma eta bertsolaritzari buruzko dokumentala grabatu zuen Euskal Herrian iazko neguan. Besteak beste, BECeko finalean eta hezkuntza arautuko bertsolaritza-klase batean izan zen. Vellinga, aldiz, frasiera bultzatzeaz arduratzen den Afük elkarteko kidea da. Hura ere BECen izan zen abenduko finalean.

Bertsolaritzak euskal gizartearen duen eragin txunditu zituen biak. Hizkuntzaren bidez sortutako “magia” aipatu dute, frasieraz halako zer-bait balego zer nolako aurrerapena litzatekeen nabarmendu dute. Euskal Herriko bisitalditik bueltan pentsatu zuten frasierazko inprobisazioari ekitea eta, hortaz, hastapenetan daude oraindik. “Bilatzen duguna da hizkuntza ez dadila izan komunikazio praktikorako bide hutsa, bestelako funtzio batzuk ere izan ditzala”, dio Vellingak. “Audientzia berrien bila ari gara, baina hizkuntzaren erabilera berri baten bila ere bai. Frasieraz poema bat sekula idatziko ez lukeenak, beharbada frasier bertso bat egingo du, dibertigarria delako”.

FRISIAKO HIZKUNTZA TXIKI GUZTIETAN INPROBISATZEA HELBURU

Maialen Lujanbioren bertso ezaguna gogoan, esan dezakegu *barteljek* bere herria sortzen segi nahi duela frasieratik eta frasieraz. Baina frasieraz soilik ez, eskualdeko edozein hizkuntza txikitan baizik. Frisian hizkuntza txiki ugari hitz egiten baitira, gehienek ehunka hitzun baino ez dituzte eta ahozko esparru informalerara mugatuta daude. Horietako batzuk dira bildts, stadsfryske, hylpers, kollumers eta stellingwerfs. Denak dira frasieraren hurbileko ahaideak, nederlandararen eta frasieraren arteko nahasteren bat edo behe saxoniera hizkuntzaren aldaerak.

Bada, horiek guztiak ere Frisiako ondare linguistikoaren parte direla aintzat hartuta, *barteljen* erabil daitezkeela erabaki dute, frasieraren pare. Hain zuzen ere, *bartelje* bultzatzen ari diren dozena erdi laguneko taldeko kideetako bat, Gerard de Jong, bildts hitzuna da. Bart Kingmak zehaztu duenez, nederlandera erabiltzea “debekatuta” dago *barteljen*, gainerakoak baimenduta: “Hizkuntza txiki-txiki asko ditugu hemen, polita litzateke jendeak hizkuntza horietan ere abestuko balu”.

Frisian ahozko inprobisatzaileak ez dagoenez, jarduera horri helduko dioten hautagaiak bilatzeari ekin diote. Lehenik eta behin, hainbat poeta gonbidatu zituzten saio batera, ea batzuk inprobisatzera animatuko ziren. “40 poeta inguru etorri ziren eta haietako asko saiatzeko prest agertu ziren”, dio Kingmak. Lehenengo probak egiten ari diren arren, Vellingak ziurtatu du noiz edo noiz agertu dela bertsolaritzaren “magia” hori: “Batzuk kantatzera ausartu dira eta zerbait irten da hortik”.

Euskaldunak eredu

Frisierazko inprobisazioak, ordea, badu traba handi bat: Hutsetik sortua denez, ezaugarri guzti-guztiak, arauak barne, zehaztu egin behar dituzte, eta hori ez da lan erraza. Izena bera ere, *bartelje*, asmatu berria da. “Frisian ez dago berezko tradizio askorik, beharbada kiro-larekin eta halakoekin lotutakoak bai, baina hizkuntzari dagozkionik ez. Musika tradizionalik ez daukagu, ahozko inprobisaziorik ere ez”, azaldu digu Vellingak.

Hortaz, *barteljer*en nortasuna erakitzeko, euskarazko bertsolaritzara jo dute eta arau nagusiak bertatik hartu dituzte: errimatze modua, neurria, *a cappella* kantatzea eta abar. “Ahozko poema inprobisatu bat sortzeko trikimailu erabilgarriak ikasi ditugu euskaldunengandik, adibidez, bertsoa azken esalditik hasi eta beste guztia horren arabera erakitzea abiapuntu ona da”, dio Vellingak.

Bertsolarien laguntza bereziki eskertu dute doinuen alorrean, melodia egokiak zein diren erakutsi baitiete. Frisian abesti tradizional gutxi gorde direnez, gehienbat pop estiloko abesti ezagunak erabiltzen dituzte doinu berriak sortzeko. Elvis Presleyren musikak arrakasta handia omen du *barteljen* hasi direnen artean.

Musika tresnen laguntzarik gabe, *a cappella*, abesteko araua ere guztiz zehaztua dute. “Gitarrak, danborrak eta abar sartzea planteatu genuen, itxura oso zaharkitua ez emateko, gazte jendeari begira”, oroitu du Kingmak. “Baina ezetz erabaki genuen, bestela pop musika egitetik hurbilegi egongo ginatke eta hortik bereizi nahi dugu, *bartelje* beste gauza bat da”.

Gizartean eragin

Hizkuntzarekin jolastuz ondo pasatzeko eta umorea egiteko bide aproposa da ahozko inprobisazioa eta *bartelje*ren bultzatzaileek badakite hori jendea erakartzeko tresna eraginkorra izan daitezkeela. Nolanahi ere, gai serioak lantzeko gogoia ere azaldu dute, BECe-ko finalean ikusi baitzuten bertsolariek gizartearen kezkei lotutako diskurtsoa darabilte eta horri esker, alderdi ludikoaz gain, bertsoak alderdi soziala ere baduela.

“Poetekin egin genuen aurreneko saio hartan ikusi genuen haietako asko oholtzara igotzen zirela umoregileak balira bezala, ‘ea goazen denok barre eta alga egitera!’ esanaz”, azaldu digu King-

mak. “Umorea egitea ondo dago, noski, baina saihestu behar dugu inprobisatzailea pailazo huts izatea, seriotasuna eskatu genien”.

“Euskal bertsolaritzaren antzeko izaera nahi dugu *barteljen*, alegia, gizarteko gai sakonei buruz hitz egitea, debatea sortzea”, gaineratu du zinema zuzendaria. “Hemen baditugu zenbait gai sozial: Etorkinak, ingurumena zaintzea... espero dut *barteljek* lagunduko digula geure nortasuna garatzen eta kontzientzia zabaltzen. Tabuak apurtzera helduko bagina, bertsolariek egiten duten bezala, gauza handia litzateke”.

Frisiera testuinguru pribatutik publikora egiten ari den jautsian eragile izatea ere bada *bartelje* bultzatu dutenen asmoa. “Frisiera ez dugu publikoan gehiegi erabiltzen, adibidez bulegoetan edo tramite ofizialak egiterakoan”, kontatu digu Vellingak. Harrituta geratu omen zen Euskal Herriko eraikin publikoetan euskarazko oharrak arruntak zirela ikusita.

Hizkuntza indartsuagoen presioa etengabea izanagatik, kontzientzia pixkanaka piztuz doa herritarren artean. Mirjam Vellingaren arabera, “Euskal Herrian bezala, Frisian leku batzuetan indartsu dago hizkuntza eta beste batzuetan, ez horrenbeste. Gero eta jende gehiagok onartzen ditu eleaniztasunaren onurak, eta seme-alabak frasieraz hezten saiatzen dira”. Nederlandaraz soilik bizi direnak erakartzea, ordea, ezinezkotzat dute, salbuespenak salbuespen. “*Barteljek* hori lortzea polita litzateke, baina oraingoz ametsa baino ez da –dio Bart Kingmak–, nederlandaraz baino ez dakitenek ez daukate jarriera oldarkorrik frasierarekin, baina interesik ere ez dute gure hizkuntzan”.

Mundu zabaleko hainbat txokotan, galtzear diren ahozko inprobisazio tradizionalei eustea eta haiek berrindartzea da erronka, eta ez nolana hikoia. Frisierre kontrako bidea hartu dute, hau da, hutsetik beren inprobisazio moldea sortu eta gizarteratzea. Bertsolaritza bidelagun badute ere, Kingmak eta Vellingak badakite ez dela erraza izango. “Guk ez daukagu 300 urteko tradizioarik, gainera bertsolaritzak pilo bat arau ditu eta guk geureak zehaztu eta idatziz jarri beharko ditugu, bestela ezin izango dugu *bartelje* gizartean hedatu”. Aurreneko pausoa egitea izaten da zailena eta hori, behintzat, eginga dute. ■